

## Antzerkia berriro Leidorren

'Mario por alusion'  
eskainiko dute gaur ▶ 3



# Ipupomamua ipuinaeren parkea jarriko dute Asteasun 2006an

**PARKEA** ▶ Lamiategi zelaian kokatuko da; Bernardo  
Atxaga eta Gorringo taldea dira sustatzaileak ▶ 6



Bernardo Atxaga, Miren Azkarate, Fernando Tapia eta Iñaki Amenabar atzoko aurkezpenean. IMANOL GARCIA

**TOLOSALDEA** ▶

### Kolorez blai dator negu honetako moda

Kirolari estiloko joera  
mantentzen da ▶ 45

**LEITZA** ▶

### Erradiazioa aurkitu dute Leitzaranen, ihes bat izan delako

Bailarako hodi batzuk ikuskatzean  
konturatu dira isuri erradiaktiboak ▶ 7

GARI BERASALUZE / UROLA-KOSTAKO HITZA



**ANTTON GARIKANO** ▶ EUSKADI ITZULPEN SARIA

## «Orain arte egindako lana hain gaizki ez dagoen aitorpena da saria»

'Bederatzietatik bederatzietara' lana  
itzuli du tolosarrak, Leo Perutzena ▶ 2

www.saldias-miguel.com  
saldias@saldias-miguel.com

**Saldias Miguel**  
Nº D.G.S.J. 1.1759

**ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

**KOTXE ASEGURUAUAK**

- KOTXAIAK  
- ZIKLOMOTOREAK  
- ISTRIPU ASEGURUAUAK  
- BIZITZA ASEGURUAUAK  
- ETXEBIZITZA ASEGURUAUAK  
- BAJAK  
- ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ENPRESAK  
- MAILEGIAK  
- INBERTSIOAK  
- KOMUNITATEAK  
- E.P.S.V. (desgrabazio fiskala)  
pentsio planak, jubilatzea...

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa  
Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

## ANTTON GARIKANO ▶ ITZULPENGINTZA ALORREKO EUSKADI SARIA

A. MANTEROLA / UROLA-KOSTA

Ingelesko irakaslea da Zumaian Antton Garikano tolosarra, baina itzulpengintza ere asko gustatzen zaio. ETBko dokumentalak itzultzeaz gain, orain Tony Morrisonen liburu bat du esku artean. Presaka dabil, baina tartea egin dio Hirtzari ere. Egun, Zاراuntzen bizia da.

**Zer da zuretzat Euskadi Saria irabaztea?**

Orain arte egindako lana hain gaizki ez dagoen aitortpena da. Aurrera jarraitzeko bultzada, eta pizgarria ere bada.

**Ondo egindako lanaren aitortpena izateko beharrezkoak al dira sariak?**

Ez, lehendik ere Eusko Jaurlaritzak ordaindutako lanak direlako. Nolabait esateko, jendea iri liburu hauek hor daudela esateko modua da. Orain urte batzuk hauxe gertatu zitzaizdan: saria irabazteko hautagaia zen liburu bat erosi nahi nuen, baina liburudendan ez zuten alerik. Gero, saria liburu horrek irabazi zuenean, denda bereko eskaparatean jarri zuten. Alde horretatik, sariak bultzada ematen diote liburuari.

**Euskadi Saria, gainera, berezia da, norbera ez delako sarrietara aurkezten; epaimahaia da lanak aukeratzeko dituen, eta ezaugarri horrek garrantzi handiagoa ematen dio sariari.**

Urtean ateratako liburu guztiak galbahe batetik pasatzen dituzte, eta gero, auskalo zein irizpideren arabera, batzuek aurrera egiten dute. Gorabehera handia da, baita ere, urtero epaimahaia aldatzea. Norberak ere ez du jakiten zein irizpideren arabera egiten duten lanek aurrera, eta aurten niri tokatu zait.

**Zenbat denbora behar izan duzu Leo Perutzen 'Bederatzietatik bederatzietara' itzultertean?**

Urtebeteko lana izaten da gutxi gorabehera. Urteko 200en bat orri itzultzen ditut, egunean 3-4 ordu emanda. Hortik bizitzea zaila da, eta nik behintzat, tarteka egiten dut, neguko arratsalde luzeak mozte aldera.

**Zergatik aukeratu zenuen liburu hori?**

Denok izaten ditugu gure go-



GARI BERASALUZZE / UROLA-KOSTAKO HITZA

## «Egindako lana hain gaizki ez dagoen aitortpena da»

Itzultzaile tolosarrak irabazi du Euskadi Saria, Perutzen 'Bederatzietatik bederatzietara' lanaren itzulpenarekin

gokoak diren liburuak. Eusko Jaurlaritzak urtero ateratzen du zerrenda bat, eta denok zain egoten gara, gogoko duguna zerrendan noiz ikusiko.

**Virginia Wolf, Hoffman, Dosztoievski eta beste hainbat idazleren lanak itzuli dituzu. Zenbat itzulpen egin duzu?**

Zortzi edo bederatzit ditut argitaratuta, eta datorren urtean Morrisonen potolo bat aterako dut.

**Argitaratu gabeak ba al dituzu?**

Bai, batez ere poesia.

**Zein poeta duzu gustukoena? Trakl eta Iraneko Said. Gehienbat horiek ditut itzulita.****Itzulpengintza lan isila eta ez-kutukoa al da?**

Astuna da liburua argitaratu eta eskuetan ikusi arteko tarte hori. Lepotik zintzilik daukazu antzekoa da, eta zeure buruari esaten diozu: «Tira, noiz edo noiz kenduko

duz katea gainetik». Oraingoa, ordea, berezia izan da, moztutako katea eten gabe zegoela konturatu naizela.

**Ingelesetik, alemanieratik, gaztelertatik eta errusieratik egin dituzu itzulpenak. Zein hizkuntzarekin gozatu duzu gehien?**

Hizkuntzarekin baino gehiago, liburuarekin gozatzen da. Denekin nahiko ondo moldatzen naiz.

**Gehien kostatu zaizun itzulpena zein izan da?**

Hasiberria nintzenetako bat izango zen. Hoffmanen ipuinak itzuli nituen alemanieratik, eta gero Virginia Wolf itzuli nuen ingelesetik. Hasiera guztietan bezala, erdi balantzaka ibili nintzen. Gero, ohitu egiten zara, eta gainera, itzultzen hasi aurretik, idazlearen beste lan batzuk irakurtzen dituzu, girtzeko eta trukoak hartzeko.

**Maria arreba ere itzultzaile**

da, eta Atxagaren emaztea. Aurten, azkenean, zuk eraman duzu familira Euskadi Saria.

Bai, horrelaxe da.

**Gaztelaniako lanak euskara itzultzea, eta euskarazkoak erdal hizkuntzetara beharrezkoa da, ezta?**

Horixe. Orain euskara kanpoko hizkuntzetara itzultzea bultzatu nahi dute, baina bi bideak beharrezkoak dira: ezagutu gaitzela, eta ezagutu dezagula.

**Euskal irakurleen joera izan da itzulpenekiko mesfidati agertzea. Orain ematen du joera hori aldatzen ari dela. Zer uste duzu?**

Gazteleraazkoa gehiago irakurtzen da, baina orain behintzat, euskaraz irakurtzeko aukerak ere badaude, eta hortik hasi behar da. Gainera, itzultzaile belaunaldi berria sortu da, eta erakundeen laguntzarekin ondo ari dira lanean.

## IBARRA ▶

### 'Ogibideak eta lanbideak' gaurtik ikusgai

Ibarrako Benito Izagirre Kultur Etxean gaurtik aurrera eta urriaren 29ra bitarte *Ogibideak eta lanbideak* erakusketa izango da ikusgai. Erakusketa honetan gure guraso eta aiton-amonek XX. mendearen lehen 50 urteetan landu zituzten ogibide eta lanbideak azaltzen dira. Bertara ikustera joateko ordutegia, 10:00etatik 13:00-etara eta 15:30etik 21:00-etara izango da.

## BERASTEGI ▶

### Pailazo ikuskizuna bihar herriko frontoian

Galtzaundi Euskara Taldeak pailazo ikuskizuna antolatuko du biharko Berastegin. Takolo, Pirritx eta Porrotx izango dira, hain zuzen ere, Poxpolin Marisorgin emanaldia eskainiko dutenak. Bihar 17:00-etan du ordua ikuskizun honetako, eta sarrerak aurrez Urepele elkartearen eta Galtzaundin bertan egongo dira edo emanaldia hasi aurretik Berastegiko frontoian eta 4 euroren truke eros daitezke.

## TOLOSA ▶

### Lasa eta Zabala desagertu zirela 21 urte dira gaur

Gaur, 21 urte beteko dira Joxi Zabala eta Joxean Lasa tolosarrak desagertu zirela. GALek bahitu, torturatu eta hil zituen ondoren. Hori dela eta, lore eskaintza egingo da beraien omenez Benta Haundin 19:30ean. Bihar, berriz, 18:00etan eskualdeko manifestaldia egingo da Triangulon, kasu honetan zigortutako Rodriguez Galindo jeneral ohiairi pasa den urriaren 1an 3. gradua ezarri eta etxean zigorra betetzea onartu izana salatzeke.

## iragarki laburrak ▶

**Administrazio laguntzaileak.**

Lanpostu libreak bete behar dira: Hernani, Usurbil, Beasain, Errenteria. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

**Gidariak.** Hamar lanpostu bete behar dira: Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Oreta, Antzuola, Legazpi.

Informa zaitetz eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

**Ostalaritza.** Sukaldariak, zerbitzariak, sukalde laguntzaileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta

ikastetxeetan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

**Ertzaintza.** 200 lanpostu bete behar dira. Baldintzak: eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

**Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre.

Datozen inkorporazioak. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

**Mantenimendua.** Arotzak, igeltseroak, elektrizistak, pintoreak eta peoiak. Lanpostu finkoak udaletan. Informazioa doan. Deitu

943 65 01 93 telefono zenbakira.

**Udaltzaingoa.** 19 lanpostu bete behar dira: Hondarribian, Irunen, Arrasaten, Beasainen, Ordizian, Oiñan, Mutrikun eta Eibarren. Informa zaitetz dohanik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

ETORKINAK ▶

**Hitzaldia antolatu du Irazki elkarte kulturantzak**

Irazki elkarte kulturantzak hitzaldia antolatu du gaur iluntzerako Kultur Etxean. Etorkinei zuzenduta dago bereziki, eta SOS Racismoko kide Agustín Unzurrunzagak Atzerritarren Legearen inguruko araudiari buruz jardungo du bertan. Araudi horren zirriborroaren gainean ariko da Unzurrunzaga, xehetasunak eta iruzkinak emanaz, 20:00etatik aurrera.

KULTUR ASTEA ▶

**Kontzertuak gaur San Estebanen eta Bonberenean**

Ttonttor, San Esteban auzokide elkarteak antolatutako Kultur Astearen baitan, kontzertuak daude iragarrita gaurko. 22:30etik aurrera Karun karama taldea ariko da San Esteban auzoan, Afrikako dantza eta perkusio ikuskizunarekin. Ondoren, DJ Talok eta Aritz Sound Sistemek jardungo dute. Bonberenean, berriz, Evaristoren Gaitillazo taldea izango da.

HEZKUNTZA ▶

**Osasun arloan lan egin nahi dutenek dohako ikastaroa**

Langabezia egon, eta osasun arloan lan egin nahi dutentzat *Zainketa kliniko eta asistentzialak* ikastaroa antolatu du Inmaculada ikastetxeak Foru Aldundia-  
ren babesarekin. Dohakoa izango da, eta geriatrikoetan eta ospitaleetan praktikak egiteko aukera eskaintzen du. Informazio gehiago nahi duenak dei dezala zenbaki honetara: 943 67 36 29.

ERLIJIOA ▶

**Bilera izango da gaur Santa Maria parrokian**

«Uda ondoren Pastoral urte berriari hasiera eman diogu, eta aurtengo lana zer nolakoa izango den ikusteko elkarrekin biltzea on zaigu guztioi». Horixe dio Santa Maria parrokiako arduradunak. Gaurko batzarrera deitu du horregatik parroki etxeko areto nagusian 20:00etarako, eta eliztarrei deia egin die: «Izan gaitezen bat bihotzez eta otoitzez».

AISIALDIA ▶

**Ttenttek taldean parte hartu nahi dutenentzat deia**

Ttenttek aisialdi taldeak ekin dio ikasturte berriari, eta «bertan parte hartu eta ondo pasatu nahi duenarentzat» deialdia egin du taldeko kideekin batera jarduerak egiteko. Horretarako, San Frantzisko parrokiko lokaletara joan beharko dute interes dutenek (Soldadu kalea, 2) hilaren 18an eta 19an, datoren astelehen edo asteartean, 18:00etatik 20:00etara.

KULTURA ▶

**‘Mario por alusion’ antzezlanana eskainiko dute gaur Leidorren**

22:30ean hasiko da ikuskizuna; sarrerek Kultur Etxean dira

**FITXA ARTISTIKOA ▶**

**Idea.** Mikel Gomez de Segura.  
**Egilea.** Jose Antonio Perez.  
**Zuzendaria.** Mikel Gomez de Segura.  
**Antzezlea.** Rafael Martin Morante.  
**Ezenografia diseinua.** Jose Ibarrola.  
**Ezenografia errealizazioa.** Ernesto Iriarte.  
**Argiztapen diseinua.** Oier Ituarte.  
**Birako teknikoak.** Peces de colores, SL.  
**Diseinua eta jantzien errealizazioa.** Eli Elizondo.  
**Produktzioa.** Traspasos Kultur SL.  
**Banaketa.** Charo Fernandez, Traspasos Kultur SL.

**EMANALDIA ▶**

**Gaia.** *Mario por alusion* antzerki emanaldia.  
**Eguna.** Gaur.  
**Ordua.** 22:30.  
**Tokia.** Leidor aretoa.  
**Salneurria.** 8 euro; 6 euro gazte txartelarekin aurretik.

**IRATXE ETXEBESTE**

1966. urtean idatzi zituen Miguel Delibesek bere hamalau garren lanaren lehen lerroak. Mario Diez Collado eta Maria del Carmen Sotillo senar-emazteen arteko liskarrak kontatzen zituen eleberriak. Gizona, irakasle liberal eta progresista, eta emakumea, balore zaharkitukoa. Ehunka orrialde idatzita edukiko zituen egindakoa berrirakurri, eta nobela beste ikuspuntu batetik egitea erabaki zuenean. Hil berria zen Mario, eta Carmenek beilatu egiten zuen hildakoa. *Cinco horas con Mario* jaio zen, hala. Zentsura gainditu zuen liburuak, eta Espainiak, kontserbadoreenak eta liberalenak, modu onean onartu zuen. Frankismoaren mugak gaindituz eta ironia erabiliz, Espainiako 60. hamarkadaren ildoak marraztu zituen Delibesek istorio polit bezain triste baten bidez. Delibesek eleberria idatzi eta hogeita hemezortzi urtetara, gizartea nahastuta dago, iparra galduta eta lider intelektualik gabe. XXI. mendean ez dago gisa horretako zentsura-

rik. Baina bere lekuan, egilea bera da bere buruari mugak jartzten dizkiona autozentsuraren bitartez. Autozentsura horrek gainerako zentsuren gauza berbera du atzean: beldurra. Eta beldurra izua da tartean zigorrik bada. Ildo horietatik abiatuta, taula gainera eraman dute *Cinco horas con Mario* eleberria. Mariok hogeita hamazazpi urte daramatzen hilkutzatik irteten du. Etengabe beilatu dute urte horietan guztietan, eta sekretu bat kontatzeko ateratzen da bertatik: bera ez da sekula hil. Isildu egin zen, besterik gabe, eta jende guztiak hildakotzat eman zuen. Bere emaztearen hitzei erreparatu ordez, gizarteak 1966tik hona eman duen aldaketa sozialari eta politikari egin dio kasu denbora horretan. Bestalde, bere bi anaien eta semearen —hirurak hilak— ahotsak entzun izan ditu. «Non geratu da guztia?», esaten zioten behin eta berriro. Erantzuna bilatu nahi dio Mariok galderari dakien moduan: apentsatuz, eta atzera begiratu du horretarako. Institutuko historia irakasle



‘Mario por alusion’ lana. HITZA

zen Mario, eta bere ikasleei zera adierazten saiatzen zen: oraina ulertzeko ezinbestekoa dela iragana ezagutzea. Umiliatu egiten dute, ordea, eta hilik dagoela irudikatu behar izan du horregatik. Bere bi anaia eta semea erahil egin zituzten bidezko ideiegatik borrokatu zirelako. Mario, ordea, izututa egon da bizitza osoan, izoztuta. Hildakoez dena non geratu den jakin nahi dute gaur. Eta Mariok uste du baduela galdera horren erantzuna: goiz edo berandu, gauza guztiak amaitzen duten leku horretan. Ori-menean. *Mario por alusion* antzezlanaren sinopsia da hau. Leidorren duzue aukera Marioren beldurren berri izateko.

AHT ▶

**Gazteteetako kideak deitu ditu AHT Gelditu!-k**

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek askotariko ekimenak prestatu dituzte datozen egunetarako, azaroaren 6an Donostiako Bulebarretik abiatuko den manifestazioa «girotzen has-teko». Gaur, 19:30ean, eskualdeko gazteteetako kideak bilerara deitu dituzte Kultur Etxean «manifestazio horren baitan zer egin daitekeen erabakitzeke». Biharko, berriz, deialdi zabala egin dute AHT Gelditu! Elkarlane-koek. Datozen egunetarako ekimenak prestatuko dituzte bilera horretan: 10:00etatik aurrera, Kultur Etxean.

JUBILATUAK ▶

**Bihar abiatuko dira jubilatutako Benidorm-era**

Haritze elkarteak antolatuta, oportetara joango dira bihar jubilatutako eta pentsiodunak Benidorm-era (Espainia). Hilaren 30a bitarte izango dira han, eta bihar, gauerdian irtengo dira San Frantziskotik. Benidorm-eko Fleming hotelean hartuko dute jubilatuek eta pentsiodunek ostatu. Poniente hondartzatik 150 metrora. Antolatzaileek adierazi dutenez, joan-etorrian zehar egiten dituzten bideko otor-  
duak norberak ordaindu beharko ditu.


**HITZAK zozketatutako Leidor Zinemaren astebukaera honetan ‘HELLBOY’ filma ikusteko bi sarreren irabazlea: MAITE ITURRIOZ ETXEBERRIA (BALIARRAIN)**

# NEGUA KOLOREZ BLAI DATOR

Gazteei zuzenduta dauden arropadenden eskaintzeki laranja, fuxsia eta berdea bezalako kolore bizien aldeko apustua egingo dute aurtengo denboraldirako



Peage arropadendak aurtengo denboraldirako kolore biziak eskaintzen ditu. **NEOLA LATABURU**



Kimetz arropadenda ehun galza mota baino gehiago eskaintzen ditu gazteentzat. **NEOLA LATABURU**

## NEOLA LATABURU

Gaiean da negua; berarekin batera, hotza eta iluntasuna. Baina aurtengo gaste modiak urtarorik hotzenak eskaintzen dizkigun paisaia grisak kolore biziz marrotzen ditu. Laranja, fuxsia, turkesa eta gorria dira gehienbat negua ikusiko diren koloreak. Halaber, jakina da klasikoak ez direla inoiz modiaz kanpo geratzen. Denetan errega kolore beltza da aurtene.

Aurtengo denboralditako klasiko denarekin apartu nahi du eta hori lortzeko kirolari tankerako moda gailentzen da. Arropa, beraz, sport estilokoa izango da. Erabikiko diren ehunen artean pana eta felpa daude aukeran. Neskeentzat mii-gonek gogor jotzen dute—gal-tzen gainera, jantziak, zein gona bera bakarrik eramateko—. Ohiko lezera duteen galtekin batera, txortakilaranoko lezera duteen galteak eskaintzen dira.

## Adin ezberdinak

Mota honetako arropa erosten duten gazteek adin ezberdinak izaten dituzte. Hamazazpi urte-estetik hasi eta adin mugagabekoak ez diren jendeak hartzen du merkatu honek. Gaur egun, gainera, jantzi gehiago zain-

tzen dute gazteen artean eta modaren garapenerekin batera aldatzen dira euren gustuak, baita estiloa ere.

Gazteek galteak aukeratzeko dimakz gabeen hasien erosketak egiteko orduan, Peage denak Mari Carmen Hurtadok dioenez, beraien denda galte tejanokoa dira gehien sal-tzen direnak. Kimetz arropa-dendak ere galteak salten dituzte gabeen. «Ehun galza mota baino gehiago ditugu aukerara», adierazi du Juango Ruiz. Kimetz-eko arduradunak.

Gaieentzako arropa salten duten dendei, era berean, mutilentzako aukera zabala dute. Koloreak horren deigarriak ez diren arren, mutili zuzenduta dagoen merkaturak aldatzen ari da. Juango Ruizek azalzen duenez, mutlak pizkanaka kolorea sartzen ari dira euren jantzeran. Mari Carmen Hurtadok, berriz, mutili aldatzeran azpitik jantze-ko praktikak nagusitzen direla azpimarratu du.

Honekin batera, aldatuak dira aurtengo kolore ikusienak gure kaleetan, bai arropetan baita osagaietan ere. Mutilen kasuan, berriz, koloreak ilunagoak izango diren arren pizkanaka geroz eta kolore bizia-koak ikusitako aukera izango dugu. «Astean geratu dira mutlak zaintzen ez ziren egunak; orain denek begiratzen diote beraien itxurari», zuzartu du Ruizek. Hala ere, jantze-ko orduan, mutlak oraindik ere neakak baino klasikoagoak direla aitortu du Mari Carmen Hurtadok eta bere denda mutilentzako gehien salten dutena galteza jakierako direla dio.

## Mutilentzako arropa

Mutilentzako arropa, gisa eta betea. Iluntasun honen aukeraketa arropetan eramango diren kolore argiak eta alaiak

## Osagai koloretuak

Arroparekin batera, osagaiak ere betetzen dute jantzeraren zati garrantzitsua. Poltsak, lepokak, eskularruak, gerritxoak, txapeak... Aurtengo jonekin bat datoz hauek guztiak.

## EROSKETAK

Galteak dira gazteek euren erosketak egiteko orduan gehien aukeratzeko duten arropa mota

## MUTILAK

Mutilentzako arropa aukera ere gero eta handiagoa da, nahiz eta oraindik koloreak ilunagoak diren

## OSAGIAK

Arropa bezala eskularruak, gerritxoak, bufandak eta bestelako osagai koloretuak izango dira aurtur



Zapatak. Zapaten modak ere aldatuak izan ditu aurtengo denboraldirako. Haurren modari dagokionez, koloreak nagusitzen dira ebeko bakienerantz. Helduei zuzendutako modan, berriz, aukera zabala dago: lakoei dagokionez, altuak zein baxuagoak daude; puntari dagokionez, zorrotrak zein borobilak daude. **NEOLA LATABURU**

Era honetan kolore deigarriak izango dituzte osagaiak, arropen koloreekin bat egiten dutenak.

Laranja, berdea, fuxsia, turkesa eta gorria izango dira, berriz aurtengo kolore ikusienak gure kaleetan, bai arropetan baita osagaietan ere. Mutilen kasuan, berriz, koloreak ilunagoak izango diren arren pizkanaka geroz eta kolore bizia-koak ikusitako aukera izango dugu. «Astean geratu dira mutlak zaintzen ez ziren egunak; orain denek begiratzen diote beraien itxurari», zuzartu du Ruizek. Hala ere, jantze-ko orduan, mutlak oraindik ere neakak baino klasikoagoak direla aitortu du Mari Carmen Hurtadok eta bere denda mutilentzako gehien salten dutena galteza jakierako direla dio.

## Mutilentzako arropa

Mutilentzako arropa, gisa eta betea. Iluntasun honen aukeraketa arropetan eramango diren kolore argiak eta alaiak

# KOLORE ILUNAGOAK, BAINA EZFORMALAK

Aurtengo denboraldirako datozen zapatek kirolari joera mantentzen dute, nahiz eta koloreak ilunagoak izango diren

## N. LATABURU

Lopela guztietako armairuetan falta ezin dabilekeen osagaiak dira zapatak. Batera eta beste-ira eramaten gaituzten hauek ere arroparen gertatzen den bezala, joera berriak dituzte. Dena den, hauen kasua aurtengo denboraldirako ezberdina da: izan ere zapatak ez dira arropa bezain koloretuak izango.

Kolore nagusiak ilunak izango dira beltza, marroia, grisa eta betea. Iluntasun honen aukeraketa arropetan eramango diren kolore argiak eta alaiak

## neurtasuna emateko helburuarekin egin da.

Joera honek, berriz, ez du zapata mota bakarra zehazten. Bota altuak, zein zapatak, punta zorrorekin, zein borobilekin, lakoiak altuak zein baxuekin, izaroldekoak zein larzukoak. Hamaika aukera dugu gure oinak tendentziarik bat jantze.

Baditu zapatagintzaren modak, ordea, arropagintzarenekin parekotasunak, biak ere kirolari tankerakoak dira, eta egingo gatastei zuzenduta doan estiloa ezformala da gehienbat.

## Ez da gauza berbera gertatzen haurrei eskaintzen den modan.

Hauri zuzendutako merkaturan, izan ere ezberdintasunak somatzen dira. Kasu honetan, zapatak kolore argi-tuz eta alaiak osatzen baitira. Oinazkoak umeak kolore alaiak jantzeko aukera izango dute, emakumei zuzenduta doan modarekin gertatzen ez den bezala.

Mutilen kasua, arroparekin gertatzen den bezala, ezberdina izaten da. Haurrei eskaintzen den zapata kirolari tankerakoa izango da eta kolore ilunekoak izango da, beltza eta

## marroia gehienbat, adituek diotenez.

Ixabel zapatadendak osagaiak ere eskaintzen ditu zapatekin batera. Zapaten kolore berdituak dituzten poltsak eta gerritxoak ditu salgai, hau da, beltzak eta marroiak gehienbat. Gainera, surten belarritxoak ere ditu aukera berri moduan. Bere jabeak dioenez, hogeit uretik gorako gazteak dira bere denda gehien erosten dutenak. Baina adin finkorik ez dagoela dio.



**'ZURE UMEEN DENDA'**  
HAUR MODA  
sehaskak • egurrikak • segurtasun albulkiak  
zakak • mandreak • ohe estaltzak  
BUCABOO • BEBECON FORT • QUINNY • INGLESIÑA  
BEBECON FORT • MAMA • COSY • ASSUPLU • OYOTONKE  
San Francisco 3, 20400 TOLOSA • Tel: 943 67 38 62

**Amia**  
LENTZAK  
Luzia kalea • Tel: 943 67 07 80 • 20400 TOLOSA

**Berezi**  
44-64  
NEURRI GEREZIAK  
Talla handia ere  
moda da.  
Herreru kalea, 3 • TOLOSA  
Tel: 943 67 45 63

**Ane** haur jantziak  
Berdura plaza, 1 • TOLOSA  
Tel: 943 67 18 18

**Iriarte**  
GERRUNTZE • LENZERIE  
Korreo kalea, 7 • TOLOSA • Tel: 943 67 03 27

**MC arropadenda**  
Enkarnite eta neskeentzako  
Neum berrosak.  
Iurre, 10 • Tolosa • Tel: 943 11 78 99

**ORLA** Udazken-Neguko bilduma  
BOUTIQUE  
Eskolapiak, 3  
TOLOSA  
Tel: 943 67 44 17

**MUGAR** Barruko Arropa  
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA • 943 65 56 85

**KIMETZ** MUTILENTZAT eta NESKENTZAT ARROPA eta OSAGIAETAN ESKAINTZA HANDIA  
Nagusia, 23 • TOLOSA • Tel: 943 67 38 62

**PEAGE**  
CUSTO  
Korreo kalea, 25 • Tel: 943 67 38 50  
Emeterio Arrese, 5 • Tel: 943 69 80 49  
TOLOSA

**Pitxita**  
San Francisco 6  
20400 Tolosa  
Tel: 943 698 030

**MC arropadenda**  
Enkarnite eta neskeentzako  
Neum berrosak.  
Iurre, 10 • Tolosa • Tel: 943 11 78 99

**Mauka**  
Tallak: 42tik-58tik  
Errementari kalea, 46 • Tolosa  
Tel: 943 67 32 89

**IXABEL** Haur jantziak, umeentzako oinikak, oinikak, oinikak eta osagaiak  
UDAZKEN ETXEN NEGUKO MODA  
Iurre, 16 • TOLOSA • Tel: 943 67 02 77



ASTEASU ▶ KULTURA

# Ipupomamua izeneko ipuinaren parkea aurkeztu dute

Lamiategi zelaian kokatuko den egitasmo berritzaile eta bakanaren sustatzaileek 2006 urtean ireki nahi dute



Ipupomamua kokatuko den eraikina muino artifizial baten pean egingo da. HITZA

IMANOL GARCIA

Ipupomamua, ipuinaren parkea, aurkeztu zuten atzo prentsaurrekoan Foru Aldundiaren egoitzan. Bertan izan ziren Eusko Jaurilaritzako Miren Azkarate Kultura sailburua, Fernando Tapia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Iñaki Amenabar As-

teasuko alkatea eta Bernardo Atxaga idazlea. Azken honek eman dio egitasmoari izena eta ondorengo hitzen hizkiak erabiliz osatutakoa da: ipuina, poema, marrazkia eta mamua.

Izan ere proiektu berri eta bakana izango da Asteasuko Lamiategi zelaian kokatuko dena. Ipuinaren inguruko parke bat izango da, ipuinak en-

tzuteko, antzezteko, irakurtzeko, ikusteko eta bizi izateko gune berezi bat, beti ere euskaraz.

Hiru urte daramatza proiektuak gauzatzen. Gorringo taldetik —bertako partaide da Asteasun bizi den Anjel Alkain antzezlea— sortu zen ideia eta Asteasuko Udalak berehala egin zuen bat egitasmoarekin.



Alkain eta Atxaga. I. GARCIA

Gero, Asteasuko semea den Atxagak izena jarri ez ezik, izena erabakitzen lagundu du.

Bultzatzaileek azaltzen dutenez, «Ipupomamua jolaserako leku bat da, ipuinak aitzakia hartuta. Ipuinak maitatzeko leku bat da, jolasa aitzakia hartuta». Kalitateko atsegintokia, ikastetxeetarako lanabesa eta sortzaileentzako antena izan nahi du.

Egitasmoa 2006 urtean jarri nahi dute martxan eta eraikuntza lanak datorren urtearen hasieran. Guztira 1.800.000 euro kostako da eta erakunde bakoitzak —Asteasuko Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurilaritzak— aurrekontuaren herena jarriko du. Asteasuko alkate Iñaki Amenabarrek Eusko Herri osora irekia egongo den horrelako egitasmoa herrian kokatzearen garrantzia nabarmendu zuen. Bere alde, Miren Azkaratek euskara bultzatzeko balio duten proiektuak hiriburuetan sortu ordez, herrietan kokatzearen egokitasunaz hitz egin zuen eta Villabonan martxan jartzen ari den Mintzola bertso zentroa ere aipatu zuen adibide gisa.

## Hipopotamoa, ikur

Ipupomamuaren ikurra hipopotamoa izango da. Ez da bertako animalia eta hori izan da hain justu aukeraketa egiteko arrazoietakoa bat. «Ipuinak ere egunerokotasunetik ateratzen gaitu», azaldu dute sustatzaileek. Muino artifiziala egingo da Ipupomamua kokatzeko, koba moduko bat sortuz. Eraikinean eszenografia aretoa, lantokiak, erakusketarako gunea, haurtxokoa, denda, bulegoak eta kafetegia izango dira. Hasiera batean Gorringo taldeak kudeatuko du egitasmoa.

Ondorengo hitzekin luzatzen du Bernardo Atxagak Ipupomamuara joateko gonbidapena: «Etor daitezela eskolak programa baten arabera, eta etor daitezela larunbata hipermerkaturu batean pasa nahi ez duten familiak».

VILLABONA ▶

## Oindolar tunela itxita Donostiarako norabidean

Egokitze eta sendotze lanak direla eta, A-15 errepideko Oindolar tunela itxita dago Donostiarako norabidean. Nafarroatik datozen ibilgailuak kontrako norabidea duen bidetik desbideratuko dira eta, beraz, 1,4 kilometroetan zehar bide bakarrean ibiliko dira ibilgailuak, tartean hormigoizko hesia izango dutelarik. Errepide mozketaz azaroaren bukaera arte luzatuko da.

ANOETA ▶

## Gaztetxearen asanblada gaur arratsaldean

Anoetako Gaztetxeak gaur arratsaldean, 18:30ean, asanblada egingo du. Bertan, aurtengo balantzea egingo da eta aurrera begira egin daitezken ekintzei buruz hitz egingo da. Ondoren, parrillada egingo da, parte hartzeko Itzuli tabernan izena eman behar delarik. Bestalde, Nafarroa Oinezera joan nahi dutenek Itzuli tabernan bertan eman behar dute izena. Autobusko txartelen salneurria zazpi eurokoa izango da.

ANOETA ▶

## Diru laguntzak udan euskara ikasi dutenei

Anoetako Udalak diru laguntza jasotzeko aukera emango die 2004ko udako ikastaroetan eta ikastaro berezietan, uztaila eta iraila bitartean, euskara ikastera joan direnei. Diru laguntza eskatzeko, besteak beste, udaletxeko eskaera-orria bete behar da eta lan-egoera —langabetua, jubilatua edo ikaslea— frogatzen duen agiria aurkeztu. Eskaria egiteko azken eguna urriaren 29a izango da.

ADUNA ▶

## Kultur Astea antolatze bilerak ostiraletan

Azaroan izango den Kultur Astearen antolaketa parte hartu nahi duten herritarrek, ostiralero dute hitzordua, gaueko 21:00etan, kultur aretoan.



# Villabona - Kultura



— ANTZERKIA —  
**Ramon Agirre eta  
Joserra Senperena**  
**'7 gezur txiki'**  
ANTZEZLANA

Urriak 15 Ostirala • Gaueko 22:30etan  
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea

KUTXA FUNDAZIOA

## ALEGIA ▶

## Kadete talderik ez, jende faltagatik

Hamaika gaztek bakarrik eman dute izena Intxurre futbol taldeko kadeteetan

## O. ESKITXABEL

Intxurre K.K.E futbol taldeak ezin izan du aurtengo denboraldirako kadete mailako taldea osatzerik izan: «Hamaika gaztek bakarrik agertu dute jokatzeko nahia eta ezinezkoa izan da taldea osatzea», diote Intxurre futbol taldeko ordezkariak. Eskualdeko herrietan jokalaria bila aritu diren arren, «kadeteen mailan ez ezik, orokorrean, gero eta zailtasun gehiago» topatzen ditu Intxurrek taldeak osatzeko.

Jokatzeko interesa agertu duten bi jokalariei, Amaroz futbol taldean aritzeko aukera eman zaiela agertu dute taldeko ordezkariak.

Hurrengo urtera begira, «gauzak aldatzeko esperantzak» azaldu dute ordezkariak.

## Gainontzeko taldeak

Eneko Garmendia ari da infantil mailako taldea entrenatzen; iaz bezala, lehenengo mailan ari dira jokatzeko. «Hiru jokalaririk gehiagoren zatia lekua dago» eta eskualdean jokatzeko interesa dutenei dei berezia luzatu diete ordezkariak.

Jubenilek ere lehenengo mailan jokatzeko dute eta taldea osatu den arren, «jokalaririk nahiko justu» dabiltzala esan dute Intxurre K.K.E-ko ordezkariak. Kadete mailako hiru jokalaririk talde horretan ari dira jokatzeko: «Jokalariei gustura ikusten zaie bai entrenamenduetan eta baita partidetan ere». Entrenatzaile lanetan Joxean Otaño irurra ari da.

Amaitzeko, lurraldeko mailako jokalaririk, bigarren mailan ari dira eta «igoera fasea jokatzeko da lehentasuneko erronka», esan dute taldeko ordezkariak. Jokalaririk guztiak kanpotarrak dira; Baliarraingo, Legorretako, Tolosako, Ibarako eta Villabonako jokalaririk daude. Eta ez dago alegiarrik taldean. Santos Irazustabarrena da, iaz bezala, taldearen entrenatzailea.

## LEITZALDEA ▶ GIZARTEA

## Leitzaranean erradiazioa

Material erradiaktiboak ihes egin die, zonaldeko hodi batzuk ikuskatzean



Isuria Leitzarango zein lekutan izan zen zehazten ez zekiten. J. A.

## JAIONE ASTIBIA

Lehenengo ostiralean, hilak 8, Leitzaranean isuri erradiaktibo gertatu zela eman dute jakitera, hainbat komunikabidek, Muskizeko zentral termikoan egun batzuk beranduago, gauza berdian gertatu zelarik. Informazio honen iturri gisa, Espainiar Estatuko Segurtasun Nuklearerako Kontseiluak igorritako prentsa oharra aipatzen zuten.

Hirzik atzo bertan, zuzenean hitz egin zuen goian aipatutako Kontseilu horretako prentsa arduradunarekin eta handik adierazi ziotenaren arabera, gaur zortzi egun, «Leitzaranean —ez zuen zein puntutan zehazten jakin— ur-hodi batzuk ikuskatzen ari zirela, horretan aritzen den enpresa bateko langileak noski, urrutiko agintek (urrutiko mandoa delakoak) akatsa izan zuen eta hodiari erradiografia ateratzeko igorritako erradiazioak ez ziren segurtasun kutxara itzuli», argitu hori zuzen eta ondorioz, «tresna hori erabiltzen ari ziren 10 langileek erradiazio horren eragina jasan zuten». Madriletik (Espainia) erantsi zuten, akats horretaz konturatu eta berehala hartu zituztela beharrezko neurriak eta ez zela aparteko arriskurik suertatu, ez langileekiko, ez eta ingurunearekiko ere.

Jakin izan denez, edozein gai garrantzeko direla ere, oso ohikoa omen da hodiaren ezauga-

riari eta egoera aztertzeko (zirikituak, hausturak,...) erradiografiak ateratzea. Horretarako pertsonentzat erabiltzen diren baina «iturri erradiaktibo indartsuagoak behar dira, material oso gogorrek zeharkatu behar baitira» eta hauek maneiatzeko, «xarflak dagozkien lekuan kokatu ondoren, urrutiko aginte baten bidez, jartzen da martxan tresna eta, erradiazio horiek igorri ondoren, berreskuratu eta itzali ere bai» adierazi zuten.

Kasu honetan, ordea, itzulerako prozesuan akatsa izan zuen delako mando horrek, Hori dela eta, langileetako batek 14 milisievte-eko erradiazioa jasan zuen, beste batek 7ko, hirugarren batek 3koa eta gaienerakoek banakoa. Beti ere arduradun horrek, «osasunari kalte egiteko haina ez da», zioen, 100 milisievte, eta urteko, jasan beharko omen lirake eta. Gaineratu zuenez, legeak 50erainoko tartea bakarrik onartzen omen du, eta urteko hau ere.

Kontuan hartu behar da, ordea, pertsonen kasuan, kopuru hauek ez direla gorputzetik desagertzen, baizik eta gehitu egiten direla. Horrela, aldi bateko eragina ttikia izan arren, erradiazio gehiago jasanez gero, urteko gehieneko kopuru horretara iristea ez dela oso zaila ere. Eta ingurunean zer esanik ez. Beti ere, behar den kasuan, kontu handiz erabili behardako tresnak lirakte.

## ALEGIA ▶

## Egiptori buruzko proiektzioa, Kultur Etxean

Egipto, 5.000 urte faraoien eta gizakien artean; hori da Patxi Sanchez-Dehesak gaur eskainiko duen proiektzioaren titulua. «Nilo ibaian eta Nasser lakuan nabigatu eta Sinaiko penintsulan barneratzeko aukera» izango dutebertaraten direnek. Proiektzioak 45 minutuko iraupena izango du eta ondoren solasaldia izango da. Emanaldia Kultur Etxean izango da 19:30ean.

## ALEGIA ▶

## Udan egindako lanak jasotzen dira 'Orrie'-n

Udan egindako hainbat lanen berri jasotzen da Alegiako Udalak ateratzen duen *Alegiako Orrie*-n. Oria ibaian egindako garbiketa (ibai ertzeko plastikokoak, ontziak, zaborrak kendu ziren), Langaurren ehizarako erabiltzen diren postuen inguruko garbiketa aipatzen dira bertan.

## ALEGIA ▶

## Kultur Kirol Etxeko kudeaketa hizpide

Kirol On, Kultur Kirol Etxeko kudeaketa daraman enpresarekiko kontratua aurtur amaitzen da eta hainbat teknikari eta batzordekide, aurrerantzean zerbitzu hori eskaintzeko modua aztertzen ari dira. Gai horren inguruan bilera deitu du Udalak urriaren 21erako; 19:30ean hasiko da bilkura.

## AMEZKETA ▶

## Lizarrara autobusez joateko aukera

Nafarroa Oinez izango da igandean, urriaren 17an, Lizarran. Bertara joateko autobusa antolatu du Amezketa-ko Gazte taldeak, orain dela bi aste kilometroetara joateko egin zuen bezalaxe. Izena emateko zerrendak herriko tabernetan jarri dituzte; autobusa 08:30ean abiatuko da herriko plazatik; izena ematen dutenek zortzi euro ordaindu behar dituzte.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
 ▶ Anbulatorioa, larriald:461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ DYA: 67 25 36  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
 ▶ Taxia: 67 04 20  
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Iturrioz, Euskal Herria, 3, (Ibarra). 943 67 09 15.  
 Gimeno A., Elbarren, 52, (Leitza). 112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldeko\_publi@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
 villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaidea.** 687 41 01 18.  
 leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## GALDUTAKOAK

**Txaketa.** Bedaion txaketa beltza galdu dut. Aurkitu baduzu deitu. Tfnoa.: 628 84 86 57.

## SALGAI

**Autoa.** Mercedes Vito 110 CDI. Hiru urte ditu, egoera onean. Lo egiteko prestatua, berogailu eta guzti. Tfnoa.: 607 29 38 11.  
**Mendiko botak.** Sportiva 212, Glaciarr mendiko botak salgai. Taila: 39 t'erdia. 652 726 490.

## LANA

**Etxeko lanak.** Pertsona euskalduna behar da etxeko lanak eta bi haur zaintzeko. 943 675 489 / 656 766 439.

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 15a, ostirala ▶ II. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketa, Anoeta, Balaran, Belauntza, Berastegi, Edoain, Herribide, Ibarra, Iruja, Lantzak, Leizorua, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzkiri.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurkitza. Kultura Saila

Eusko Jaurkitza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

16

hotzera

13

goizez

arratsaldez

BIHARKO EGURALDIA

goizez

arratsaldez

16

hotzera

13

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
 (zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**ANTZERKIA**

**Tolosa.** *Mario por alusion.* 22:30ean Leidorren.

**Villabona.** *Zazpi gezur txiki* antzezlarana. Gurea zineman, 22:30ean.

**DEIALDIAK**

**Alegia.** *Egipto, 5.000 urte* taraoien eta gizakien artean. proiektzioa Kultur Etxean. 19:30ean.

**Belauntza.** Jubilatuen Eguna urriaren 24ean izango da. Izena urriaren 20a baino lehen eman.

**Tolosa.** *Atzeritarren Legearen araudia* hitzaldia, Kultur Etxean 20:00etan.

**Tolosa.** Santa Maria parrokiako pastorala bilera 20:00etan parrokiako areto nagusian.

**KIROLAK**

**GAUR**

**Esku pilota.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Zazpi-Iturri - Urnieta (Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 20:00, Amezketa).

▶ Zazpi-Iturri 1- Hernani (Eskuz banaka. Gazteen 1. maila. 20:00, Amezketa).

▶ Zazpi-Iturri 2- Añorga (Eskuz banaka. Gazteen 1. maila. 20:00, Amezketa).

▶ Zazpi-Iturri - Lazkao (Eskuz banaka. Nagusien 2. maila. 20:00, Amezketa).

▶ Aurrera-Saiatz (Koldo Galarraga) - Anaitasuna (Eskuz banaka. Gazteen 1. maila. 19:30, Bidania).

▶ Aurrera-Saiatz (Beñat Iriarte/Xabier Galarraga)-

Hernani (Eskuz banaka. Gazteen 2. maila. 19:30, Bidania).

▶ Aurrera-Saiatz (Mikel Belloso/Julen Mugika)- Anaitasuna (Eskuz banaka. Nagusien 1. maila. 22:00, Beotibar).

**Zesta Punta.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Beotibar 2 (Artetxe /Errondosoro) - Donostia Jai Alai 1 (Nagusien maila. 19:00, Santa Luzia kiroldegian).

▶ Beotibar 2 (Trabazos /Gonzalez) - Donostia Jai Alai 2 (Nagusien maila. 19:00, Santa Luzia kiroldegian).

(Santa Luzia txapelketa)

▶ Uranga-Zaldua/Lopez-Mugerza (Alebinen maila. 18:30, Beotibar).

▶ Etxabe L.A.-Etxabe R. /Manterola-Izagirre (Gazteen maila. 19:00, Beotibar).

▶ Gabarain-Gurrutxaga / Ruiz-Narbarte (Gazteen maila. 19:00, Beotibar).

▶ Erauskin-Bildarraitz/Sanchez-Alberro (Gazteen maila. 19:00, Beotibar).

**BIHAR**

**Areto futbola.**

▶ Hegoalde K.E.-F.S.F Mostoles (Emakumezkoen Ohorezko maila. 19:00, Berazubi).

▶ Soloarte F.S.- Ibarra (1. maila A. 18:15, Basauri).

▶ Oslo Santurtzi-Laskorain K.E. (Lehenengo maila B. 18:00, Santurtzi).

**Esku pilota.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Zazpi-Iturri 1- Hernani (Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 17:00, Amezketa).

▶ Zazpi-Iturri 2- Anaitasuna

(Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 17:00, Amezketa).

▶ Zazpi-Iturri 1- Bergara (Eskuz banaka. Nagusien 1. maila. 17:00, Amezketa).

▶ Aurrera-Saiatz (Xabier Telletxea) - Erniope (Eskuz banaka. Kadeteen 1. maila. 16:00, Alkiza).

**Futbola.**

▶ Elgoibar C.D.- Tolosa C.F (Jubenilen Euskal Liga. 18:15, Mintxeta).

▶ Tolosa C.F.- A.D. San Viator (Kadeteen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).

▶ Ostadar F.T.- Tolosa C.F. (Lurraldeko 1. maila. 15:30, Michelin).

▶ Danena K.E.- Lasarte Oria K.E. (Lurraldeko 2. maila. 16:30, Elbarrena).

▶ Billabona K.E.- Behobia C.D. (Jubenilen 1- maila. 16:30, Arratzain).

▶ Inxurre K.K.E.- Hernani C.D. (Jubenilen 1. maila. 15:30, Elorri).

▶ Usurbil F.T.- Tolosa C.F. (Emakumezkoen Liga. 16:00, Harane).

**Zesta punta.**

(Elkarteen Arteko Txapelketa)

▶ Donostia Jai Alai 1/ Beotibar 1 (Telleria-San Sebastian). (Kadeteen maila. 11:00, Balda pilotalekuan).

**ETZI**

**Futbola.**

▶ Tolosa C.F.-Mondragon (Gorengo maila. 16:30, Berazubi).

▶ Amaroz K.E.-Usurbil F.T. (Lurraldeko 2. maila. 11:00, Elorri).

(DV txapelketa)

**Futbol7.**

▶ Ibarra Gozte Asanblada-Easo Motor (1. Maila A. 12:00, Felix Garin 2).

▶ Knauf Decoración Nuñez-Lanbroa Dickens (1. Maila A. 10:00, Beasain 1).

▶ Bar Shanti Kirolak-Eibartarra Dance Club (2. Maila, A. 11:00, Beasain 1).

**MUSIKA**

**Tolosa.** Gatillazo (Evaristo). 22:30ean Bonberenean.

**Tolosa.** Karun Karama, DJ Talo eta Aritz Sound System. San Esteban auzoan 22:30ean.

**NAFARROA OINEZ-LIZARRA**

**Anoeta.** Gazte Asanbladak autobusa antolatu du. Itzuli tabernetan eman behar da izena.

**Amezket.** Herriko tabernetan eman daiteke izena. Gazte Taldeak antolatuta.

**Belauntza.** Kultur Etxean eman behar da izena.

**Ibarra.** Izen-ematea Karlatz eta Zubiaurre tabernetan. Gazte Asanbladak antolatuta.

**Leitza.** Torrea eta Gaztañaga tabernetan.

**Tolosa.** Gaitzaundi Euskara Taldean eman daiteke autobusetarako izena.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**

Bernarda Mugika San Sebastian (Amezket). Gaur 80 urte. Zorionak bereziki Irene eta Ainhoaren partez. Horrelako guapa izaten jarraitu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
 berriak euskaraz

Euskal Herriko eta mundu zabaleko  
 berriak ere euskaraz



**Aukeratu euskarazko prentsa!**

Informazio gehiagorako:  
 943 30 43 46 edo harpidetza@hitza.info